

IPUIN LEHIAKETA 2016

LH3 - LH4 kategoria

91 ipuin aurkeztu dira. Epaimahaia: Ainhoa Urien eta Marisol Juaristi.

-Lehenengo saria: “Txominen bazkaria”, JONE BERRIZBEITIA MUNITXA

Hizkuntza jatorra erabiltzen du, lexiko aberatsa eta produktuen erabileraren bestelako irudi bat. Euskaraz zuzen idatzita egoteak atsegin egiten du irakurketa.

“-Zer egiten duzu hor? Ez al duzu bazkaldu behar?

Txominek lasai-lasai erantzun dio:

-Ez, sukaldeko usainarekin nahikoa dut.”

-Bigarren saria: “Euskeraren jaiotza”, UXUE GORROTXATEGI AGIRRE

Gaiaren aukeragatik bereizten den ipuina da. Euskararenganako hurbilpen bat nabaritzen da eta irudimen jariatsua du.

“Apurka-apurka, gauza guztiei izena ipintzen hasi ziren eta gure hizkuntza, Euskera jaiotzen zen”.

-Hirugarren saria: “Martintxo eta suge gorria”, PAUL DUEÑAS VALLEJO

Euskara zuzenean dago idatzita. Istorioak mamia du eta eboluzioa ondo kontatua dago.

*“-Zer ume,zer? Zer pasatzen da?
-Harrapatu dut sugea harrapatu zuen lapurra.
-Eta zer nahi duzu egitea?”.*

LH5 - LH6 kategorია

71 lan aurkeztu dira. Epaimahaia: Karol Urien eta Gemma Telletxe.

**-Lehenengo saria: “Fatimaren bizipenak”, HAITZ
GAZTELURRUTIA SIMON**

Ipuina gaur egungo gerra giroa eta erbesteratuen giza tragediaz ari da ume baten ikuspegitik guri kontatua. Pasarte gordinak baditu ere, maitasunari eta goxotasunari tarte egiten dio.

"Haren uniformearen Sahin jartzen zuen. Sahin ilegorria zen, begi berdeduna, argala, hankafina eta bere ezkerreko besoaren goialdean Turkiako bandera zuen".

**-Bigarren saria: “Ametsetan zehar”, MARTZEL ALTUBE
SARRIONANDIA**

Umeez eskolan sarritan aspertuta daudenean ametsen mundura ihes egiten dute eta, ipuin honetan bezala, ametsen munduan sartzen dira.

"- Non gaude?

Eta erantzun zion Mikelek:

- Ez dakit, baina ate bat dago; zeharkatu egin beharko genuke. Zer deritzozu?”.

**-Hirugarren saria: “Ametsen kobazuloa”, UNAX JAUREGI
ARKARAZO**

Mundu onirikoak sentsazio zirragaragarriak bizitzera eramaten gaitu eta ipuin hau oso irudimentsua izanez gain, haurtzaroko xalotasuna gogorarazten digu.

"Ametsendako egun berri bat hasi da; eskolara doa, sentitu dituen sentsazioak desagertu dira eta eguna igaro ondoren, berriz bere barneko emozioz beteriko kobazuloak aurkitzeko prest dago".

DBH1 - DBH2 kategorია

35 ipuin aurkeztu dira. Epaimahaia: Sugar Perez eta Ekaitz Herrera.

**-Lehenengo saria: “Larringaneko errota”, MALEN GOÑI
GORRITXATXEGI**

Errealitatea eta pertsonaia mitologikoak lotzen dituen istorio honek, Abadiñon murgiltzen gaitu bete-betean. Izan ere, Larringango errotan kokatua dago, eta Abadiñoko euskera darabil pertsonaien elkarrizketetan. Bestalde, deskribapen laburrek eta lexiko aberatsak ipuinean erabat murgiltzen gaituzte.

“Arnasestuka eta izerditan heldu ginen errotara, ez zen ez, aldapa makala! Baina bat-batean ahotsak entzuten hasi ginen, era askotakoak... Noski, jakin-mina genuen eta ateko behatxulotik begira gelditu ginen. Ikusi genuena sinestezina zen”.

-Bigarren saria: “Amets bat errealitatera”, JUNE MORAN BERNAS

Izenburuak dioen bezala, irakurlea errealitatearen eta ameskeriaren artean saltoka darabil, hasieratik bukaeraraino. Are gehiago, ipuinaren amaiera bera, “Aliciaren abenturak Lurralde Miresgarrian” liburuarekin uztartzen duenean. Kontakizun bizia eta erakargarria.

“Txikitatik beldurrez beteta gaude, batzuk ilunpean egoteari, beste batzuk isiltasunari; baina, gehien sufritzen den beldurra ohearen azpian norbait edo zerbait dagoela pentsatzea da.”

-Hirugarren saria: “Londreseko hilketak”, IDOIA URIBE MIGUEL

Eguneroko baten gisara idatzitako kontakizun honek, oso modu zehatz eta bizian ekartzen digu Londresen girotutako istorio krudel bezain erreal. Ez da inolaz ere itsusia edo ankerra dena ezkututzen duena, beharrezkoa baita kontakizunaren gordintasuna helarazteko.

“Gaur beste biktima bat aurkitu dute parlamentuaren erlojuan zintzilikatuta eta bururik gabe... Biktima horrek ez zuen familiarik eta aurreko hildakoa bezalaxe pub bateko langilea zen. Kamerak ez du hiltzailea grabatu. Zelan sartu den parlamentura, gorputz eta guzti, argituko dut”.

DBH3 - DBH4 kategoria

48 lan aurkeztu dira. Epaimahaia: Inma Unzueta eta Jose Inazio Arrizabalaga.

-Lehenengo saria: “Lore batenganako biolentzia”, ARIADNA FERNANDEZ DIAZ

Alepo, Damasko... Aktualitateko erreportajea izan daitekeen narrazio aberatsa. Familia baten istorio gogorra, neskato batek lehen pertsonan dotore azaldutakoa.

“Gaueko hamarrak izango ziren bat-batean txistu bat entzun zenean. Ez zen txoririk, ezta txirularik ere. Akram asko larritu zen, eta nire ahizpa eta ni eskuetatik hartu eta nire gurasoen ohe azpian sartu gintuen. Zarata ikaragarria eta itzela entzun zen eta lurrak dar-dar egin zuen. Pasatu zenean, ez ginen ohe azpitik irten, baina Akrami geldetu nion:

-Zer izan da hori?

-Bonba bat –erantzun zuen oso serio”.

**-Bigarren saria: “Amaieratik hasierara”, MADDI LOIZATE
IZURIETA**

Heriotza eta bizitzaren arteko borroka eta hausnarketa, hainbat pasartetan idazkera poetikoa eta sakona ageri duena.

“Desagertu nahi dugunean, norbaitek gure falta suma dezan nahi dugulako da, eta norbait horrek itzultzea eskatzea. Horregatik, inork ez du hil nahi, inork ez duelakio bakarrik egon nahi betikotasun guztirako, inork ez du nahi itzuli ezin izaterik. Eta horregatik, beti itzultzen gara, nahiz eta gura ez izan”.

**-Hirugarren saria: “Birraitona arrantzalea”, OLAIA NAVERAN
URIEN**

Ternuako pasadizo harrigarria, ahoz aho mendeetan zehar transmititutakoa. Kontaketa bizia eta irudimen handikoa.

“Emakume bat ikusi zuen. Ez zuen bere hizkuntza ulertzen, baina euskara ere bazekien.

-Non nago?

-Ternuan zaude. Zure baleontzia hondoratu egin zen eta zu zara bizirik iraun duen bakarra, ametsetan ari zinenean behin eta berriz errepikatzen zenuen. Hemengo arrantzaleak joan dira baleontzia aurkitzera, baina ez dute ezer aukitu, oso arraroa da. Bihar eramango zaituzte zure herrira, orain egon lasai”.